

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEA

*Hiri Hondakinen Zerbitzua Eibarren emateko Tasa Arautzen duen Ordenantzaren aldaketaren hasierako onarpena.*

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Batzar Orokorak, 2018ko urriaren 17an egindako ezohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Hiri Hondakinen zerbitzua Eibarren emateko tasa arautzen duen ordenantzari, 2019ko ekitaldian aplikatzeko, honako honi jarraikiz:

*Lehena.* Eibarko udalerrian hiri-hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuak egiteagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketari hasierako onarpena ematea, 2019an aplikatu ahal izateko.

*Bigarrena.* Hartutako erabakia eta horretarako hasiera emandako espedietea jendaurrean jartzen dira. Gipuzkoako Ogasun Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.1 artikuluan xedatutakoarekin bat. Horretarako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Iragarki Taulan iragarkiak jarriko dira, eta, era berean, artikuluko horretako 2. zenbakiak eskatzen duenaren arabera, Gipuzkoan hedapen handiena duen egunkariren baten ere argitara emango da.

a) *Agiri horiek erakutsiko diren lekua:* Debabarrena Eskualdeko Mankomunitate Idazkaritza.

b) *Aztertze eta, kasua balitz, erreklamazioak egiteko epea:* 30 lanegun, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarki hau argitara eman eta hurrengo lanegunetik hasita kontatzen, bulego orduetan.

c) *Erreklamatzeko legitimatuta daudenak:* uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 17. artikuluko aipatzen dituenak.

d) *Aurkezteko lekua:* Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Sarrera Erregistro Orokorra.

e) *Erreklamazioa aurkeztu behar zaion Organoa:* Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Batzar Orokorra.

Inolako erreklamaziorik egin gabe informazio hau jendeaurrean edukitzeko epea igarotzerakoan, hartutako erabakiak behin-betiko onartutzat joko dira, beste erabakiren bat hartu beharrik gabe.

Eibar, 2018ko urriaren 29a.—Arcadio Benítez Dávila, presidentea. (7219)

MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA

*Aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza Reguladora de la Tasa por la prestación del servicio de R.U. en Eibar.*

La Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, en sesión extraordinaria, de fecha 17 de octubre de 2018, aprobó inicialmente la modificación de la ordenanza reguladora de la tasa por la prestación del servicio de R.U. en Eibar, para su aplicación en el ejercicio 2019, conforme a lo siguiente:

*Primero.* Aprobar inicialmente la modificación de la ordenanza fiscal, reguladora de las tasas por la prestación de servicios de recogida y tratamiento de residuos urbanos, en el municipio de Eibar, para su aplicación en 2019.

*Segundo.* El acuerdo adoptado y el expediente, al efecto instruido, se someten a información pública, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el Tablón de Edictos de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y también en un periódico de los de mayor difusión de Gipuzkoa, según exige el número 2 del citado artículo.

a) *Lugar donde se halla de manifiesto el expediente:* En la Secretaría de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

b) *Plazo para examinarlo y, en su caso, para formular alegaciones:* 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en horario de oficina.

c) *Legitimados para reclamar:* Los que relaciona el art. 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) *Lugar de presentación:* En el Registro General de Entrada de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

e) *Órgano ante el que se recurre:* Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrán por definitivos los acuerdos adoptados, sin necesidad de nuevos acuerdos.

Eibar, a 29 de octubre de 2018.—El presidente, Arcadio Benítez Dávila. (7219)